



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urtarrilaren 22a

6. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Bideko autobiatik, Nafarroako ubideko alde ureztagarrietatik eta funtzionarioen montepiotik etorkizunean sortuko diren gastuei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Bideko autobiatik, Nafarroako ubideko alde ureztagarrietatik eta funtzionarioen montepiotik etorkizunean sortuko diren gastuei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Bideko autobiatik, Nafarroako ubideko alde ureztagarrietatik eta funtzionarioen montepiotik etorkizunean sortuko diren gastuei buruz Comptos Ganberak egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Bideko autobiatik, Nafarroako ubideko alde ureztagarrietatik eta funtzionarioen montepiotik etorkizunean sortuko diren gastuei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Txostenean aztertutako jardueren deskribapena (3. or.).
  - II.1. Montepioa (3. or.).
  - II.2. «Itzalpeko bidesaria» (4. or.).
    - II.2.1. Bideko autobia (5. or.).
    - II.2.2. Nafarroako ubideko alde ureztagarriak (6. or.).
- III. Helburua (8. or.).
- IV. Garrantzia eta metodologia (8. or.).
- V. Mugak (9. or.).
- VI. Ondorioak eta gomendioak (9. or.).
  - VI.1. Ondorio orokorrak (9. or.).
  - VI.2. Gomendioak (10. or.).

VII. Aztertutako gaiari buruzko azalpenak eta oharak (11. or.).

VII.1. Montepioari buruz (11. or.).

VII.2. «Itzalpeko bidesariari» buruz (11. or.).

VII.3. A-12 autobiarri buruz (Iruña-Logroño) (11. or.).

VII.4. Nafarroako ubideko alde ureztagarriei buruz. (15. or.).

VII.5. «Itzalpeko bidesariak» hurrengo aurrekontuetan izanen duen eraginari buruz (18. or.).

I. Eranskina. Montepioak Nafarroako Gobernuarentzat izanen duen kostuaren banaketa denboran (19. or.).

II. Eranskina Nafarroako Gobernuak ordaindu beharreko kanonaren urteroko banaketa (20. or.).

Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen behin-behineko txostenari egindako oharak (21. or.).

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako oharrei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (22. or.).

**I. SARRERA**

2006ko urtarrilaren 30ean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak Nafarroako Comptos Ganberari txosten bat eskatzea erabaki zuen, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen proposamenez, gai hauetan hurrengo ekitaldietarako zer gastu-konpromiso hartu zituen jakiteko: funtzionarioen montepioa, Iruña-Logroño-ko A-12 autobia finantzatzeko foru legea eta Nafarroako ubideko alde ureztagarriak finantzatzeko foru legea.

Aipatutako parlamentu-taldearen eskaeraren arabera, hau da txostena eskatzeko arrazoia: "Foru Parlamentu honek duela gutxi onartu du

Nafarroako ubideko alde urretagarriak finantzatzeko foru legea, eta Nafarroako Gobernua pozik azaldu da aurrekontuz kanpoko finantziatziora jotzeagatik. Hala ere, ez daki etorkizunean zer ondorio jakin izanen dituzten ekintza horiek. Funtzionarioen montepioen finantziatioak eta azpiegituretarako onartutako finantziatioek baldintzatuko dituzte etorkizunean Nafarroako aurrekontuen bideragarritasuna eta inbertsioak egiteko gaitasuna, eta, hori dela-eta, erakunde espezializatua denez, aipatutako txostena eskatzen diogu Nafarroako Comptos Ganberari”.

Nafarroako Comptos Ganbera eta Parlamentua harremanetan egon ondoren, Foru Parlamentuko Mahaiak 2006ko apirilaren 3an erabaki zuen txostena sar zedila 2007. urterako lan-programaren barruan.

Txosten hau zazpi ataletan egituratuta dago. Sarreraren ondoren, lanean aztertu diren jardueren deskribapen labur bat eta “itzalpeko bidesaria” azaltzen dira bigarren atalean. Beste hiru atal helburuari, garrantziari eta metodologiari eta mugei buruzkoak dira. Seigarrenean ondorio orokorrak eta gomendioak agertzen dira. Eta, zazpigarren atalean, montepioari, itzalpeko bidesariari, autobitari eta Nafarroako ubideko alde urretagarri buruzko azalpenak eta oharrak jaso dira. Bi eranskin ere sartu dira, etorkizunean izanen diren gastuak denboran nola banatuta geratuko diren ikusteko.

Auditore batek eta auditoriako hiru teknikariki osatutako talde bat aritu da landa-azterketak egiten, aurtengo lehen lauhilekoan.

Eskerrak ematen dizkizuegu talde eta erakunde hauei guztiei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik: Nafarroako Gobernuak langileak, Lehendakaritza, Herri Lan eta Nekazaritza Departamentuak, Riegos de Navarra eta Riegos del Canal de Navarra enpresa publikoak.

## **II. TXOSTENEAN AZTERTUTAKO JARDUEREN DESKRIBAPENA**

Txostenean aztertutako jarduerak dituzten ezaugarri nagusien deskribapen labur bat eginen dugu atal honetan.

### **II.1. MONTEPIOA**

Historian zehar, montepio-sistema baten bitartez antolatu da Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen gizarte-babesa. Gaur egun, bost montepio hauek daude: Foru Komunitateko administrazioaren montepioa, udaletarako monte-

pio orokorra eta Iruñeko, Tuterako eta Tafallako Udalen hiru montepioak.

1992ko eta 1994ko urtarrilaren hasieratik, hurrenez hurren, Foru Komunitateko administrazioan edo Nafarroako toki-erakundeetan sartu diren funtzionario berriak gizarte-segurantzako erregimen orokorrean sartu dira, eta, hortaz, bi data horietatik aurrera, montepioen ereduak galtzeko bidean dagoen sistema itxia da.

Nafarroako Gobernuari dagokio bi montepio orokorrak kudeatzea.

Montepioek banaketa-eredu honi jarraitzen diote: funtzionarioek hileroko egiten dute ekarpen bat, eta aurrekontuen kontura finantzatzeko dira prestazioak; hau da, ez dago enpresa-kuotaren balioakiderik.

Funtzionario publikoen estatutu-araubideari buruz Nafarroak izan duen eskumen eskusibo historikoan, antzinako legedi sakabanatu batek arautzen zuen pasiboen erregimena. 1931ko martxoko akordio bat zen legediaren muina, Foru Aldundiko funtzionarioen erretiroak eta pentsioak arautzen zituen akordioa, bai eta hainbat arau osagarri eta eguneratzaile ere.

Montepioen sistema ez da bateratua. Denetan bereizten da 1973ko uztailaren aurretik sartu ziren pertsonen estatusa eta ondoren sartu zirenean; izan ere, 1973ko uztailaren aurretik sartu zirenek metatzen diren bosturtekoen sistema baitute, eta gerora sartu zirenen bosturtekoak, berriz, ez dira metatzen.

Hurrenez hurren bi foru legeren proiektuak aurkeztuta saiatu zen Gobernua sistema aldatzen. Lehenengoa 2000ko irailean aurkeztu zuen, eta Parlamentuak ez zuen onartu. Gobernura itzultzea erabaki zuen. Bigarrena, 2002. urtekoa, 2003ko martxoaren 5ean onartu zuten, Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko 10/2003 foru lege gisa. Nafarroako Parlamentuak hala eskatuta, Comptos Ganberak aholkularitza-txostenak egin zituen bi kasuetan.

Bi montepio orokorren gizarte-babesa duten langileak gizarte-segurantzako erregimen orokorrean sartzea da foru legearen azken helburua. Horregatik da iragankorra, Nafarroako Gobernuaren eta Gizarte Segurantzaren artean etorkizunean egonen den negoziazioa bukatu arte egonen baita indarrean, legeak berariaz hala gomendatuta.

Foru legeak araututako sistema berria aukerakoa da funtzionarioentzat, eta, hortaz, beste montepio bat erantsi da.

Etorkizunean gizarte-segurantzian sartzea agertzen da artikuluko guztietan, eta babes-erregimen publiko haren antz handia duen sistema bat ezartzen du.

Aurrekontuei buruzko ondorengo legeek ezarritako pentsioen erregimena eguneratzen dute funtsean.

Laburbilduz, Nafarroako funtzionarioen gizarte-babeserako berariazko eredia amaitzen ari da, nahiz eta haien prestazioak ehun urte luza daitezkeen gutxi gorabehera.

## II.2. «ITZALPEKO BIDESARIA»

Ubideko urreztapenak eta Bideko autobiak etorkizunean sortuko dituzten gastuak aztertu aurretik, komeni da "itzalpeko bidesaria" izena hartu duen emakida-sistema azaltzea.

Azpiegiturak eraikitze eta ustiatzeko sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sistemetako bat da, eta sektore pribatutik finantzazioa lortzea da sistema horren helburu nagusietako bat.

Administrazio publikoaren zor-bolumenari eta defizitari Europar Batasunak ezarritako mugen ondorioz garatu zen sistema hori, besteak beste.

Laburbilduz, administrazioak zerbitzu baten ustiapena ematen dio enpresa bati, aldi baterako, eta, horretarako, enpresak beharrezko azpiegiturak eraikitzen ditu. Enpresak emakida indarrean dagoen bitartean bere kontura finantzatzen du eraikuntza eta mantentzea, eta ordainsari bat jasotzen du administratortik, azpiegituraren erabileraren arabera (ibilgailuak autobiaren kasuan edo urreztatze ura).

Hau da, sektore publikoak sektore pribatuari agintzen dio azpiegitura eraikitze eta mantentzeko, eta ez du aurrekontuetatik ordainketarik eginen azpiegitura abian jartzen den arte. Abian jartzean, kanon bat ordaindu behar du azpiegitura erabiltzeagatik. Kanona gastu gisa jasotzen da ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan. Normalean, kanonak hiru osagai hauek izan ditzake: eskari-kanona, erabileraren arabera; kalitate-kanona, azpiegituraren erabilgarritasunaren arabera; zaintza-kanona, zaintzeko eta mantentzeko gastuen arabera.

Kasu horietatik askotan, erakunde pribatuak ezin du eraginik izan azpiegituraren erabileran, eta, hortaz, ezta etorkizunean lortuko dituen dirusarreretan ere. Hori dela-eta, logikoa da gutxieneko dirusarrera batzuk "bermatu" nahi izatea. Beste aldetik, ulergarria da administrazio publikoak gehieneko muga bat ezarri nahi izatea sektore

pribatuari ordaindu behar dion zenbatekoari, eta, horrela, "gehiegizko" irabaziak saihestea.

Plegu eta kontratu zabal eta konplexuen bidez arautzen dira eragiketa horiek, eta hainbat alderdi hartzen dira kontuan.

Europako erakundeek ahaleginak egin dituzte jarduteko modu berri horiek ez daitezkeen bihur "aurrekontu-ingeniaritzako" sistema soilak. Hortaz, jarduera publikoa edo pribatua den erabakitzeko, arriskuaren zatirik handiena nork hartzen duen bere gain kontuan hartzen da.

Prozesu guztian zehar dauden arriskuak hiru motakoak izan daitezke:

a) Eraikuntzatik sortutako arriskuak; besteak beste, atzerapenak, gainkostuek, urritasun teknikoak... sortuak.

b) "Azpiegituraren erabilgarritasunaren" arriskuak; esate baterako, eskatutako bolumena ezin hornitu ahal izatea edo azpiegiturak araudiak edo kontratuak berak eskatutako kalitate-maila ezin lortu ahal izatea.

c) Zerbitzuaren eskaririk sortutako arriskuak. Zerbitzuaren erabileraren arabera sortzen direnak, aldaketa ezin zaionean egotzi erakundearen kudeaketari.

Europako araudiak ezarri du emakida indarrean dagoen garaian aktibo horiek ez direla jaso behar administrazio publikoaren balantzeetan, erakunde pribatuak bere gain hartzen badu eraikuntza-arriskua, bai eta beste bi arriskuak ere: erabilgarritasun-arriskua edo eskari-arriskua.

Aldiz, administrazioak bere gain hartzen badu eraikuntza-arriskua edo erakunde pribatuak arrisku hori bakarrik hartzen badu bere gain, publiko gisa jasoko dira.

Emakida indarrean dagoen garaian, ondasunak publikotzat hartuz gero, kontuetan azaldu behar dute, eta, ondorioz, ordaintzen ez den zatia defizit publikoaren hazkunde gisa hartzen da. Ez badira ondasun publikotzat hartzen, ez dira sartzen administrazio publikoaren kontuetan, eta, hortaz, ez dute defizit publiko handitzen. Bi kasuetan, azpiegitura abian jarri ondoren, administrazioak kanonaren zenbatekoa ordaindu beharko du, aurrekontuen kontura.

Itzalpeko bidesariaren deskribapen laburra egin ondoren, modu horretan kontratatu diren bi azpiegiturak (txosten honetan aztertu beharreko bi azpiegiturak) aztertuko ditugu.

### II.2.1. Bideko autobia

2001eko urrian, Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko 21/2001 Foru Legea onartu zuen Nafarroako Parlamentuak.

Garai hartan aurreikusitako aurrekontua 288 milioi eurokoa zen.

Legearen zioen azalpenean, hau adierazita dago:

“Horrelako komunikazio-bide bat egitea asko luza daiteke baliabide ekonomikoak jartzen ez badira. Administrazio publikoen aurrekontuko gastuaren kontrolak, gaur egun, munta handiko obretarako baliabideak erabiltzeko ahalmena mugatzen du, eta horixe bera gertatzen da Iruña-Lizarrar-Logroño autobian”.

Hori dela-eta, ekimen pribatuak parte hartuko duela onartzen da.

Emakidaren gehieneko epea 30 urtekoa izanen dela agertzen da.

Bideragarritasun-azterketa bat egin zen, enpresa pribatu baten laguntzaz, eta azterketa hura oinarritzat hartu zen kontratuaren plan ekonomikorako.

Lana bi fase hauetan zatituta dago: Zizur-Lizarrar, 30,3 km eta Lizarrar-Logroño, 32,1 km. Lehenengo fasea hiru zatitan banatuta dago, eta bigarrena, beste bi zati orokorretan.

Bi eskaintza aurkeztu zituzten lizitazioa. Haietako batek pleguko prezioak baino altuagoak aurkeztu zituen, eta, hori dela-eta, ez zen onartu. Hori dela-eta, kide hauek osatutako taldearen eskaintzak lortu zuen lizitazioa:

CAN KORPORAZIOA,	ehuneko 40.
FCC, S.A. ....	ehuneko 40.
NEC, S.A. ....	ehuneko 20.

Azkeneko biek eginen dituzte lanak, 35-65eko proportzioarekin, hurrenez hurren.

NEC tokiko hainbat enpresaz osatutako taldea da.

Administrazioak kenduko ditu jabetzak, eta, jabetzak kendu ostean, emakida-hartzaileari “ematen” zaizkio. Emakida-hartzaileak adostutako zenbatekoa ordaintzen du, eta obraren kostu gisa sartzen du. Kostu hori kanonaren bitartez berreskuratuko du.

Fase bakoitzerako epeak ezarri arren, 2007ko apirilaren 30a da lanak amaitzeko eta abian jarrita egoteko behin betiko epea. Aurrez amaitu ziren berez lanak, 2006. urtearen amaieran. Autobia pix-

kanaka jarri da abian, zatiak bukatu ahala eta lan guztiak amaitzean jarri da osorik abian.

Lanak amaitzean, administrazioak onartu egiten du lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioa. Prezio hori hartu behar da kontuan eskarrikanona ordaintzeko.

Kontratuaren bitartez, emakidaren finantza-plana onartzen da. Plan horrek zuzentzen du bai kontratua, bai finantziazio-tresnen edukia ere.

Horrela arautzen dira, besteak beste, gai hauek:

a) Lanak finantzatzeko funts propioen eta besteren funtsen proportzioa.

b) Kontratuaren iraupena. 15 urtetik 30 urtera artekoa izanen dela dago ezarrita, finantziazioan emakida-hartzaileak erabiltzen dituen besteren baliabideak likidatzeko dauzkan betebeharren arabera.

c) “Gordailu-kontu berezian” sartu beharreko kanon bidezko dirusarreraren ehuneko. Besteren finantziazioa itzultzeko erabiliko da.

d) Ibilgailu arin eta astunentzako tarifen zenbatekoa. Kopuruaren arabera, hiru tarte hauek ditu: lehenengoan tarifa osoa ordaintzen da; bigarrenean ehuneko 50eko deskontua egiten da, eta hirugarrenean, berriz, ehuneko 90ekoa da deskontua.

e) Tarifak eguneratzeko urte bakoitzeko KPlak hartuko dira kontuan.

Kontratazio-espeditentea onartu eta esleipen-fasea hastean, 2002. urtean Nafarroako Gobernuak ezarritako ordainketen aurreikuspenen arabera, 516 milioi euro ordaindu behar zuen kanonetan 2007tik 2032ra bitartean, euro konstantetan, 894 milioi euroren baliokidea euro korrontetan. Azpiegituraren eraikuntza, mantentzea, finantziazioa eta enpresa esleipendunaren onurak ordaintzen dira, funtsean, zenbateko horien bitartez.

Datu horiek ikusita, ondoriozta daiteke alderdi hauek eragina dutela esleipenaren ondorioz etorkizunean sortuko diren gastuetan:

- Lanak egiteko aitortutako amaierako zenbatekoa.
- Finantziazioaren interes-tasen aldaketak.
- Urteroko KPIren bilakaera.
- Autobiako zirkulazioan egoten diren aldaketak.
- Emakidaren epe aldakorra, 15 urtetik 30 urtera artekoa, lortutako maileguak amortizatzean bukatzen baita.

Lanak gauzatzeko prozesuan zenbait aldaketa egin dira; besteak beste, aldaketa hauek: beste hainbat jarduera egitea onartu da, 19,9 milioi euroko ordainketa onartu da autobia lehenago abian jartzeko ordain gisa eta prezioak aztertzea onartu da, tarifak kalkulatzeko.

### II.2.2. Nafarroako ubideko alde ureztagarriak

Nafarroako ubideak ureztatuko duen eremuko interes orokorreko azpiegituren eraikuntzari eta ustiapenari buruzko azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legeak hau adierazten du zioen azalpenean:

“Lege haien (Nekazaritzako azpiegiturek berri-zeari buruzko 18/94 Legea eta Nekazaritza azpiegiturei buruzko 1/2002 Legea) indarraldian izandako esperientzia eta Nafarroako ubideak ureztagarri bihurtuko dituen lurren eraldaketaren ondorio sozioekonomiko handietan jarritako esperantza aintzat hartuta, komenigarria eta bidezkoa da behar diren obrak egiteko prozesua azkartzea eta obra haiek Nafarroako ubidea eraikitzeke erritmoratzea. Horretarako, komenigarritzat jo da ekimen pribatuari laguntza eskatzea, gaur egun lehentasunezko tresna bat baita lan publikoen emakida-kontratuaren bidez...”

Bestetik, bidezkoa dirudi kontratu horretaz baliatzeak, jarduera ororen kontrol publiko egokia gutxietsi gabe, emakida-hartzailearen esku uzten baitira eraikuntzaren eta ustiapenaren arriskua. Bestetik, gainera, hobetu egiten da eraginkortasuna aurrekontuari dagokionez, eta horrela betetzen dira Europako Kontuen Sistemaren eta Europar Batasunaren Estatistika Bulegoaren (Eurostat) irizpide eta arauak.”

Foru Lege honek honako hauek arautzen ditu: jarduketa honen araubide juridikoa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta Riegos del Canal de Navarra, S.A. sozietate publikoaren arteko harremanak, lan publikoaren emakida-kontratua, azpiegituren entrega eta obrak egiteko behar diren okupazio eta zortasunak...

Foru Lege honek ezartzen du Riegos del Canal de Navarra, S.A. sozietate publikoa izanen dela obraren emakida-emailea.”

30 urtean ezarrita dago emakidarako gehiengo epea, eta azpiegiturek osorik eraikitzeke bost urte beharko direla aurreikusten da.

Nekazaritza azpiegiturei buruzko 1/2002 Legeak partikularrei (ureztazaileen komunitateei) eta interes orokorreko lanei ezartzen dizkien ekarpen ekonomikoak eskatu ahal izanen dira. Ekarpentari Riegos del Canal de Navarra, S.A. sozietateari eginen zaizkio, eta sozietate horren kontu batean sartuko dira.

Aipatutako legeko 4.5 artikulua arabera, emakida-hartzaileak bere gain hartzen ditu arrisku hauek: eraikuntza-arriskua, alde ureztagarriko eskari-arriskua eta azpiegituren erabiltzeko baldintza onetan edukitzeko erabilgarritasun-arriskua. Erabilgarritasun-arriskua lotuta egonen da lan publikoaren kudeaketaren kalitatearekin eta ureztatzekearen eskaria behar bezala kudeatzearekin.

Izarreibartik Ablitasera artekoa da alde ureztagarria, 177 km ingurukoa, eta bi fase hauetan banatuta dago: lehenengoa Aragoi ibaira arte eta bigarrena Aragoi ibaitik Ablitasera arte.

Lehenengo fasea hasi da. Lehenengo fasea 15 sektoretan banatuta dago. Lehenengoa, Izarreibar, eta hamargarren sektorearen zati bat administrazioak eraiki ditu, eta gainerako sektoreekin batera ustiatzeko eman zaizkio emakida-hartzaileari.

Guztira 53.000 hektarea ureztatuko direla aurreikusten da. Zati berdinetan banatuta daude fase bakoitzean.

23.610 hektareako lehenengo fasea eraikitzeke ustiatzeko foru legearen proiektuarekin batera doan memoria ekonomikoko datuen arabera, 181,6 milioi euroko inbertsioa dago aurreikusita (administrazioak egindako zatia barne).

Bideragarritasun-azterketan sartutako azterketa ekonomikoko aurreikuspenen arabera, Nafarroako Gobernuak eskari- eta kalitate-kanonengatik egin beharreko ordainketak 218 eta 508 milioioak dira, hurrenez hurren. Guztira, beraz, 726 milioio ordainketak egin beharko dira 2006-2036 denboraldian, euro korrontetan. Hau da, ehuneko 30 eskari-kanonarenak izanen dira eta ehuneko 70 kalitate-kanonarenak.

2006ko irailean sinatu zen kontratua Canal de Navarra S.A sozietate emakida-hartzailearekin. Sozietatea enpresa hauek osatzen dute:

Enpresa	Kapitaleko partaidetza
Acciona, S.A.	35
CAN korporazioa	35
Isolux Corsán concesiones, S.L.	10
Befosa S.A.U.	10
Obras Especiales de Navarra, S.A.	3,33
Arian S.A.	3,34
Urbanizaciones Iruña, S.A.	3,33
Guztira	100

Finantza-plana ere sartu da, eta plan horretan, gai hauek arautzen dira, besteak beste: emakida-

hartzailearen funts propioen eta besteren funtsen arteko proportzioa eta eskari- eta kalitate-kanonen arteko erlazioa.

Ez dira prezioak aztertuko, kanonen konfigurazioan kontuan hartzen baita denboraren joana eta KPIren ondorioak.

Uraren kontsumoaren arabera eskari-kanonaren kontzeptuarekin Nafarroako Gobernuak ordainduko duen tarifak zenbait zuzenketa ditu, bolumenaren arabera, eta 6.333 m<sup>3</sup>/ha-tik aurrera ez du ezer ordainduko.

Lanen eta instalazioen amaierako prezio aitortua ez da igoko eraikuntzan akatsak edo urritasunak daudela-eta eraikuntza-proiektuan aldaketak daudenean eta, aldaketa horien eraginez, kostua handitzen denean.

Laburbilduz, modu honetan finantzatu da multzo osoa:

- Lurzatiak bateratzeko proiektuak, azterketak eta horrekin guztiarekin lotutako gai orokorrak Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu osorik, lurzatiak bateratzeari buruzko araudiaren arabera.

- Lurzatiak bateratzeko lanak proiektu orokorren sartzen dira, eta araudi orokorraren arabera finantzatzen dira.

- Nafarroako Gobernuak ordaintzen ditu osorik lurzatiak bateratzeko lanak (bideak, drainatze-sis-

temak...) eta interes orokorreko lanen ehuneko 85 (ureztapen-sistemak). Kanonaren bitartez ordainduko ditu bi kontzeptu horiek (itzalpeko bidesaria).

- Jabeek ordaindu beharko dituzte haien lursailetan ureztatzeko sistemak jartzeak sortzen dituen gastuak, baina Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak eman ahal izanen dizkie, haien ezaugarriak kontuan hartuta, nekazaritzako inbertsioei buruzko araudiaren arabera, jabeek lursailen barruan egin behar dituzten lanengatik.

- Jabeek aurretik ordaindu beharko diote Nafarroako Gobernuari (edo Gobernuak izendatzen dituen enpresa publikoei) banaketarako interes orokorreko lanengatik dagokion ehuneko 15.

- Horrez gain, jabeak kontzeptu hauek ordaindu beharko ditu:

a) Kanon bat esleipendunari, ustiapen- eta mantentze-gastuengatik.

b) Kanon bat Nafarroako ubidea erabiltzeagatik.

c) Kanon bat ltoizko urtegia erabiltzeagatik.

Kontsumitutako uraren arabera egingen dituzte ordainketak, lehenengo kontzeptuan izan ezik, hektareako ordaintzen baita.

Enpresa esleipendunak eskaintza bat aurkeztu zuen, eta nabarmen murriztu zuen lizitaziorako oinarria, koadro honetan ikus daitekeenez:

	Oinarria	Eskaintza	Aldaketa %
06-36 denboraldirako eskari-kanona	218	229	+ 5
06-36 denboraldirako kalitate-kanona	508	230	- 55
Guztira	726	459	- 37

Laburbilduz, Bideko autobiaaren eta Nafarroako ubideko alde ureztagarrien eraikuntza eta ustiapena administrazioaren eta ekimen pribatuaren lankidetzaren bitartez egiten da, hainbat urtetan kanon baten bitartez ordaintzen den emakida-kontratu baten bidez; hau da, "itzalpeko bidesaria" izeneko kontratuaren bitartez. Hala ere, ezaugarri bereziak dituzte. Esaterako, alde ureztagarrietan, emakida-

ren epea finkoa da, eta autobiaaren kasuan, berriz, aldakorra. Ureztapenetan askoz pisu handiagoa du kalitate-kanonak guztira ordaindu beharreko kanonean. Hasiera batean, arrisku handiagoa dago alde ureztagarrietako eskari-kanonean, uraren kontsumoa aldatzeko arriskua baitago, erabiltzaileek laborantzei buruz hartzen dituzten erabakien arabera.

### III. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 10/1984 Foru Legearen arabera, txosten hau egin da goian aipatutako eskaera parlamentarioari erantzuteko. Gai honi buruzkoa zen eskaera: funtzionarioen montepioarekin, Iruña-Logroño A-12 autobia finantzatzeko Foru Legearekin eta Nafarroako ubideko alde ureztagarriak finantzatzeko Foru Legearekin etorkizuneko ekitaldiarako hartutako gastuen konpromisoak.

Hortaz, Nafarroako Gobernuak hartutako konpromisoen bolumena kuantifikatzea eta Nafarroako aurrekontu orokorretan etorkizunean izanen duen eragina aztertzea da eskaeraren helburu nagusia.

Bi azpiegiturak "itzalpeko bidesaria" izeneko lankidetzaren sistemaren bitartez egiten direnez, administrazioaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzaren modu horren deskribapena eta azterketa ere egin da.

### IV. GARRANTZIA ETA METODOLOGIA

Lan hau egiteko, dokumentazio hau aztertu da:

a) Montepioarako.

Nafarroako Comptos Ganberak gai horri buruz egindako txostenak<sup>(1)</sup> erabili dira, bai eta txostenak egiteko erabilitako dokumentazioa ere. Halaber, azken ekitaldian gauzatutako aurrekontuak ere aztertu dira. Zer informazio genuen ikusirik, 2007ko apirilean idatzi bat bidali genuen Parlamentura, montepioari buruzko lana egiteko eta gai horri buruz genuen iritzia emateko zer aukera zegoen adierazteko. Aukeretako batean, berriz egin behar ziren azterketa aktuarialak, kanpo-lankidetzaren laguntzaz. Hau adieraziz amaitzen zen idatzia: "Nafarroako Comptos Ganbera honen iritziz, eskatutako lanerako egokiena da A-12 autobia eta Nafarroako ubideko alde ureztagarriak finantzatzeko etorkizunean hartu beharreko konpromisoak aztertzea. Hortaz, baldin eta Parlamentuak ez badu beste zerbaitek egitea komenigarriagoa ikusten, montepioari buruzko aurreko txostenetako datu orokorrak erabiliko dira; izan ere, ez zaigu iru-

ditzen merezi duenik aparteko gastua egitea eta denbora inbertitzea zer emaitza lortuko diren kontuan hartuta. Montepioari buruzko datuek ohar honetan adierazitako mugak izanen dituzte, baina, gure ustez, txostenaren tratamendu egokiena hori da oraingo egoeran. Gainera, etorkizunean zabalatzeko aukera ere badago".

Parlamentuak erantzun zuen, eta proposamenaren jakinaren gainean zegoela adierazi zuen.

b) A-12 autobiarako.

Aurreko lanetako informazioa erabili da, eta Parlamentuak egindako eskaerari buruzko informazioa aztertu da. Alderdi ekonomikoari eman diegu garrantzi handiena, eta, txosten honen helburuen arabera, ulertzeko behar den informazio guztia aztertu da.

c) Nafarroako ubideko alde ureztagarrietarako.

Alderdi ekonomikoari buruzko espedienteko informazioa landu da, eta, autobien kasuan bezala, ulertzeko behar zen informazioa aztertu da.

Ez autobien kasuan, ez eta alde ureztagarrien kasuan ere, ez dira guztiz aztertu espedienteak, eta, hortaz, ez dira beste zenbait alderdi aztertu; besteak beste, alderdi hauek: esleipenak, zirkulazioa edo ura neurtzeko sistemak... Autobien aldaketak, berriz, aztertu dira, eragina baitute kanonaren zenbatekoan.

Halaber, ekimen pribatuaren eta sektore publikoaren arteko lankidetzari buruzko zenbait txosten, azterketa eta artikulua aztertu dira, batez ere "itzalpeko bidesaria" izenekoarekin lotutakoak.

Comptos Ganberaren lanerako gidaliburuaren arabera egin dugu lana, eta kasu bakoitzaren arabera beharrezko iruditu zaizkigun proba guztiak egin ditugu. Nafarroako Comptos Ganberako administrazio-, informatika- eta zuzenbide-zerbitzuen laguntza jaso dugu.

Foru Administrazioaren kudeaketa hobetzeko beharrezkoak iruditu zaizkigun azalpenak eta gomendioak ere ageri dira txostenean.

(1) 2001eko ekainaren 6ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala.  
2003ko otsailaren 19ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala.



## V. MUGAK

Lan honek behean adierazitako mugak ditu:

a) Parlamentura bidalitako idatzian adierazi dugunez, ez dugu azterketa aktuarial eguneraturik egin; hau da, aurretik egindako azterketak erabili ditugu gure lanean. Azterketa haien helburua ez zen zehatz-mehatz goian aipatutako eskaeraren helburua. Gainera, montepioarekin zerikusia duten arau-aldaketak gertatu dira orduz gerostik. Arrazoi horiek direla-eta, ez dugu datu eguneraturik, baina iruditzen zaigu dauzkagun datuak nahikoak direla txosten honetan azaldu ditugun ondorioak ateratzeko.

b) Autobiaren lanak bukatu dira, baina amaierako prezio aitortuak onartzeko daude eta konprometitutako gastuak hainbat aldagai ditu; besteak beste, zirkulazioa, interesen bilakaera, KPlen bilakaera... Gainera, emakidaren epea aldakorra denez, ezinezkoa da zenbateko zehatza lortzea.

c) Ureztapen-sistemen lanak eraikuntzako lehenengo urtean daude, eta, hortaz, ez dakigu zenbateko kostua izanen duen lanak. Gainera, ez dakigu inondik inora zer laborantza-mota izanen dituen eta ur-kontsumo erreala zenbatekoa izanen den. Horren guztiaren eraginez, ezin da zenbateko zehatzik atera.

d) Zenbait aldagaien bilakaerari buruzko hipotesietan oinarrituta egin dira kalkulu guztiak; besteak beste, autobiako zirkulazioa, ureztatzeko uraren bolumena, KPlak, maileguren interes-tasa... Horregatik, hipotesiak konparatzeko balio dezakete kalkuluek, baina ez zenbateko zehatzik ateratzeko. Hala ere, txosteneko ondorioetan aurreikuspen batzuk jaso ditugu, orain arte egindako lanak kontuan hartuta.

## VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanetik atera ditugun ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu ondoren, txosten honetan adierazitako garrantzia eta mugak kontuan hartuta, bai eta gure jardueratik sortutako gomendioak ere.

### VI.1. ONDORIO OROKORRAK

- Zer muga dauden eta eragiketek zer ezaugarri dituzten kontuan hartuta, oro har, ezin dugu kopuru orokor bat eman; hau da, ezin dezakegu adierazi gai hauen eraginez etorkizunean egonen diren gastuen zenbateko zehatza: funtzionarioen montepioa, A-12 autobiaren eraikuntza eta ustiapena eta Nafarroako ubideko alde ureztagarrien eraikuntza eta ustiapena. Hala ere, ondorioetan adierazi dugu jarduera horien ondorioz sor daitez-

keen gastuak zenbatekoak izanen diren gutxi gorabehera.

- Montepioen gastuei buruzko azterketak ez ziren txosten honen helburu berarekin egin, eta hainbat hipotesi biltzen zituzten. Mutur bateko hipotesietatik beste muturrekoetara ehuneko 60tik gorako aldaketa zegoen. Hipotesi bakoitzetik sortutako balioen arteko aldea eta arau-aldaketek izan ditzaketen eraginak kontuan hartuta, datuak gutxi gorabeherako aurreikuspen gisa hartu behar dira. Kalkulu horien arabera, Nafarroako Gobernu-ko montepiotik etorkizunean sortuko liratekeen gastuak 4.329 milioi euro korrontekoak izanen lirateke, eta 100 urtean baino gehiagoan izanen litzukete ondorioak, txosten honetako I. eranskinean ageri denez.

- "Itzalpeko bidesaria" izenekoaren bidez finantzatutako bi azpiegituren kasuan, berriz, oraingo datuekin egin daitezkeen kalkuluen arabera eta txostenean adierazitako mugak kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak zenbateko hauek ordaindu beharko litzuke kanon gisa:

a) Autobia. 1.157,6 milioi euro korronte, 25 urteko eperako. Finantza-planean ezarrita dago.

b) Ureztapen-sistemak. 459,4 milioi euro korronte, 30 urteko eperako.

Eranskinean jasota dago zenbatekoen banaketa urte bakoitzeko.

- Orain ditugun datuak kontuan hartuta egindako kalkuluen arabera, autobiako eta Nafarroako ubideko alde ureztagarrietako kanonak aurrekontuetako bigarren kapituluan gauzatutako gastuen ehuneko 15ekoak izanen dira batez beste, gutxi gorabehera. Hau da, 2006. urtean 50 milioi euro inguru hazi beharko zen kapitulu hori. 2. kapitulua kontuan hartuta egiten da kalkulua; izan ere, kapitulu hori da adierazgarriena. Hala ere, adierazi behar dugu alde ureztagarrien kanona 4. kapituluan jasota dagoela (transferentziak), Riegos del Canal de Navarra enpresa publikoa sortu baita hura kudeatzeko.

- Autobia azkarrago abian jartzea interes publiko kontua denez, eta lehenago abian jartzeko lana azkartzeak dituen kostuak eta kontratuaren garapenean administrazioak onartutako aparteko lanen eraginez epean egondako luzapenak kontuan hartuta, aldaketa egitea onartzen da. Enpresak aurkeztutako kalkuluen arabera, 19,9 milioi euro gehiago kostatuko da eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da kanona kobratzen, zerbitzua abian jartzeko dataren eta lanak amaitzeko aurreikusitako dataren tarteko datan.

Ordainketa hori ez dago aurreikusita pleguan. Gure ustez, pleguan aurreikusitakoa bete beharko litzateke kanona kobratzen hasteko datari dagokionez (autobia abian jartzen denean, hurrengo hileko lehen egunetik ordaintzen hastea), eta, horrez gain, autobia lehenago abian jartzeko lanak azkartu behar izanaren eraginez aurreikusitako gastuak baino handiagoak egon direla aitortu beharko litzateke, behar bezala justifikatuta.

Aldaketa horrek kanonean duen eragina 36,1 milioi euro korrontekoa da, 25 urtean.

- Enpresa emakida-hartzailearen eskaera onartuz, Nafarroako Gobernuak interpretatzen du pleguak kontraesankorrak direla, esaten baitu prezioak aztertuko direla inbertsioaren balioa ezartzeko eta ez kanonaren tarifa kalkulatzeko. Horregatik, aldaketa bat egitea eta prezioak azterzea onartu du tarifak kalkulatzeko.

Gure iritziz, plegua koherentea da, prezioen azterketa alde batera uzten du kanona kalkulatzeko; izan ere, prezioen aldaketaren ondorioak 2002. urteko jatorrizko tarifak eguneratuta zuzentzen dira, KPIen arabera, bai eta lizitatzailak eskaintzan jaso behar zuen kostuen kalkularen arabera ere.

Hortaz, gure ustez horrela eragin handiagoa du prezioen azterketak ordaindu beharreko tarifetan, eguneratzean aurreikusita baitzegoen eragina izanen zuela.

Prezioen azterketaren behin-behineko zenbatekoa 35,6 milioikoa da, eta eskari-kanonean duen ondorioa, berriz, 76,1 milioi euro korrontekoa da, 25 urtean.

- Nafarroako ubideko alde ureztagarrien emakidarako lizitazioa irabazi zuen eskaintzak lizitazioaren zenbatekoa baino ehuneko 37 txikiagoa den kanona ordainarazten dio Nafarroako Gobernuari; hau da, 267 milioi euroko kanona.

## VI.2. GOMENDIOAK

Gure lanaren ondorio gisa, gomendio hauek ematen ditugu:

- *Prezioak aztertzeak eta A-12 autobia lehenago abian jartzeak sor ditzaketen aldaketen ondorioak azterzea, eta, bidezkoa izanez gero, neurri egokiak hartzea. Nolanahi ere, etorkizunean antzeko lizitaziorik eginez gero, pleguetan adierazi behar dira berariaz ordainduko diren kalte-ordainak.*

- *Azterketa ekonomikoekin osatzea espedientek. Emakida-kontratuen baldintzak aldatuko dituzten akordioak onartu aurretik egin behar dira, itzalpeko bidesarien kasuan, esaterako, sistema berriak baitira, aurretik ez baitago inolako esperientziarik, eta balio ekonomiko handia baitute.*

- *Gizarte Segurantzaren sisteman sartzen ez bada eta montepioaren legedian zer aldaketa gerta daitezkeen kontuan hartuta, administrazioak azter dezake finantzen ikuspuntutik komeni zaion neurriren bat hartzea, montepioaren karga denboran zehar homogeneousago banatu ahal izateko.*

- *Finantziazio-tresna horien ondorio ekonomikoak kontuan hartzea; izan ere, hainbat urtetarako gastuen parekotzat hartzen ez badira ere juridikoki, haien antza baitute. Nafarroako Ogasun Publiko Foru Legeak adierazten du hainbat urtetarako konpromisoen muga orokorrak ezin dituela ehuneko hauek gainditu, hasierako aurrekontuko kapitulu ekonomiko bakoitzeko:*

*Hurrengo ekitaldian, ehuneko 70.*

*Bigarren ekitaldian, ehuneko 60.*

*Hirugarren ekitaldian, ehuneko 50.*

*Laugarren ekitaldian eta hurrengo ekitaldietan, ehuneko 30.*

*Ehuneko horiek erabiliko dira, halaber, hemen aztertu ditugun kasuetan bezala, legeak urte gehiagotarako baimendu baditu gastuak eta legean ez badira adierazten gehieneko ehunekoak.*

## VII. AZTERTUTAKO GAIARI BURUZKO AZALPENAK ETA OHARRAK

Atal honetan zenbait azalpen eta ohar ematen ditugu, bai eta hainbat ondorio ere, aurreko informazioa zabaltzeko eta txostena eta aurreko atalean aurkeztutako ondorio orokorrak ulertzen laguntzeko.

### VII.1. MONTEPIOARI BURUZ

- Nafarroako Foru Aldundiak montepio-tresna ezarri zuen bere funtzionarioen gizarte-babeserako sistema gisa. Aurreko mendeko hogeita hamarreko hamarkadan du jatorria, eta 1992tik aurrera ez du kide berririk jaso. Hortaz, galtzear dagoen sistema itxi bat dela pentsa daiteke. Hala ere, zehaztu behar dugu beste ehun urtean baino gehiagoan izanen lituzkeela ondorioak.

- “Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari” buruzko 10/2003 Foru Legea onartuta, bi montepio jarri dira abian; izan ere, ordura arte indarrean zegoen sisteman jarraitzeko edo lege horretatik eratorritako eredu berria hautatzeko aukera eman baitie onuradunei.

- Lege horrek ezarritako aldaketek Gizarte Segurantzaren sistema orokorretik sortzen diren ondorioekin parekatu nahi dituzte montepioaren ondorioak; izan ere, etorkizunean Gizarte Segurantzaren sartzea da azken helburua, legearen izenburuan bertan argi geratzen denez: “..araubide iragankorra”.

- I. eranskinean ikus daitekeenez, montepioaren gastu garbia hazten joanen da 2032. urtera arte, eta litekeena da oraingo gastuaren zenbatekoa baino 2,5 aldiz handiagoa izatea orduan, gutxi gorabehera. Data horretan, gastu osoaren erdira iritsiko da, eta 2050. urtean, ehuneko 85 baino gehiagora. Hogeita hamar urtean (2020-2050), gastuaren bi heren biltzen dira.

### VII.2. «ITZALPEKO BIDESARIARI» BURUZ

- Zerbitzuen emakidarako ereduaren bitartez, kanon bat ordainduta finantzatzen dira azpiegituren eraikuntza eta ustiapena. Horrela, zorrik jaulki gabe atzeratzen da ordainketa, eta, gainera, ekimen pribatuari ematen zaio arriskuaren zati bat.

- Azpiegitura publikotzat ez hartzeak eta ordainketa atzeratzeak “inbertsioak egiteko ahalmen handiagoa eman diezaieke” administrazioei.

- Europako Kontuen Sistemako (SEC-95) arauak betetzen diren ala ez kontuan hartu gabe, zorra finkatzeari edo ez finkatzeari eta zorra kontabiliza-

tzeko moduari dagokionez, argi dago erabilera publikoko azpiegiturak direla, litekeena dela azpiegitura formalki lortzeko denbora behar izatea eta ordainketa batzuk egiteko konpromisoa hartzen dela. Hori guztia kontuan hartu behar da administrazio bakoitzaren egoera ekonomikoa aztertzean.

- Aurrekontuei dagokienez, oraindik ez da arau-eragiketa horiek kontabilizatzeke modua.

### VII.3. A-12 AUTOBIARI BURUZ (IRUÑA-LOGROÑO)

- 2002ko martxoan, kontratua egiteko baimena eman zen. Kontratuaren aurrekontua, BEZ barne, 300,2 milioi eurokoa zen (lanak egiteko). Aurrekontu hori honela banatuta dago: 279,2 milioi euro lanak egiteko eta 21 milioi laguntzarako, desjabetzak egiteko eta beste hainbat jardueratarako. Gainera, autobiak emakida-epean 73,3 milioi euroko ustiapen-kostua izanen duela kalkulatu dugu, hogeita hamar urtean.

- 2002ko irailean sinatu zuten kontratua, 300,2 milioi eurokoa (lanak egiteko). Kontratuaren barruan sartuta daude alderdi hauek guztiak: eraikuntza-proiektuak, autobien eta autobiar lotutako lanen eraikuntza, zirkulazioa neurtzeko sistema ezartzea eta autobia ustiatzeko eta zaintzeko lanak.

- Emakida-epea 30 urtekoa da, baina 15 urtera murriz daiteke gutxienez ere, kontratuan sartzen den finantza-planaren arabera.

- Aurreikusitako kontratu garrantzitsu guztiak sinatzen direnean, finantza-plana ezarrita geratuko da. Eraikuntza finantzatzeko lortzen diren maileguak dira funtsean kontratu garrantzitsu horiek. Emakida-kontratuaren betebeharra da kontratu horiek betetzea.

- Eraikuntza-proiektu guztiei behin betiko onarpena eman ondoren, eraikuntza-proiektu guztiak (OEP) kontrata bidez egiteko aurrekontua ezarriko du administrazioak.

- OEP ezinen da inoiz izan emakida-kontratuaren ageri den eraikuntzaren aurrekontu osoa baino handiagoa, esleipendunak egindako eskaintza kontuan hartuta.

- Autobien eraikuntza-lan guztiak amaitu ostean, lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioa (prezioen berrikuspena sartu gabe) onartuko du administrazioak. Finantza-plana egokituko da. Horrela, kontratu honetan ezarritako eraikuntza-fasean egin beharreko lanen aurrekontuaren orde, lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioa jarriko da (BEZ gabe). Prezio hori agertuko da administrazioak ordaindu beharreko eskari-

kanonean, bai eta kanpoko finantziazioaren behin betiko zenbatekoa ezartzeko garaian ere.

Finantza-planean ezarrita geratuko da zer lotura dagoen finantza-planean ageri diren kanpoko baliabideengatik emakida-hartzaileak dituen betebeharrak guztien likidazioaren eta emakida-epaeraren amaieraren artean.

emakida-hartzaileak eskari-kanonarengatik jasotzen dituen dirusarreraren ehuneko 50 (BEZ sartu gabe) eta dirusarrera horien BEZaren balio-

Ibilgailua	BEZ gabe	BEZarekin
Arina	0,0655	0,0760
Astuna	0,0884	0,1026

Aplikatu beharreko tarifen behin betiko prezioa administrazioak lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioaren azterketari lotuta dago.

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, tarifak KPIren

Arinak	Astunak	Zuzenketa gabe
345.000.000 arte	45.000.000 arte	Tarte horri dagokion zenbatekoaren % 50
345.000.001etik 380.000.000ra arte	45.000.001etik 60.000.000ra arte	Tarte horri dagokion zenbatekoaren % 90
380.000.000 baino gehiago	60.000.000 baino gehiago	

- Unitate-tarifa aplikatzeko, lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioa hartuko da kontuan (prezioen azterketa sartu gabe). Amaierako prezioa administrazioak onartutako eraikuntza-proiektu guztiak (OEP) kontrata bidez egiteko prezioarekin konparatuko da.

Administrazioak onartutako eraikuntza-proiektu guztien prezioa kontuan hartuta amaierako prezioa handitzen edo txikitzen den ehuneko puntu bakoitzeko, oinarriko unitate-tarifa 0,7 handitu edo txikituko da.

- Administrazioak kudeatuko ditu jarduerak hauek: desjabetzak, obra-zuzendaritza, kanpoko kalitate-kontrola eta jarduerak osagarriak. Lan horiek guztiak egiteko, administrazioak 21.000.000 euro emanen dizkio emakida-hartzaileari, eta ez du bukaerako likidaziorik egiten jarduerak horien gatik. Hortaz, harentzat izanen da sortzen den saldoa. emakida-hartzaileak kontratuaren barne-kostutzat hartu beharko du kopuru hori.

- Sinatutako kontratuari bi aldaketa hauek egitea onartu da: bat, 2004ko urtarrilean, eta, bestea,

kidea Gordailu-kontu berezi batean sartuko dituela hitz ematen du.

Kanpoko baliabideekin finantzatzeari buruzko sorkuntza diren betebeharrak guztiak bukatu ondoren, saldoa badago gordailu-kontu berezian, Nafarroako Gobernuari transferitu beharko zaio, gehiegizko kanona kobratu dela-eta.

- 2002. urteko eurotan, pleguko gehieneko tarifak bat datoz irabazi zuen eskaintzan aurkeztutako tarifekin. Hauek dira ibilgailuko/kilometroko/urteko ordaindu beharreko tarifak:

arabera eguneratzen dira, 2002ko irailetik izandako aldaketak kontuan hartuta.

- Kanonak zuzenketa hauek ditu, ibilgailua/km/urtea:

2005eko apirilean. Kontratuko alderdi jakin batzuk ere jasotzen eta zehazten dituzte aldaketa horiek. Aldaketa horietatik, hauek dira nabarmentzen ditugun alderdirik garrantzitsuenak:

a) Lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezio gisa hartzen du lan bakoitzaren prezioa gehi 21.000.000 euro desjabetzengatik eta beste kontzeptu batzuegatik.

b) Unitate-tarifa zehazteko, adierazten du amaierako kostua esleipen-prezioarekin konparatuko dela; hau da, 300,2 milioi euroekin.

c) Tarifak zehazteko, kontuan hartzen da aitortutako amaierako prezioa, eta amaierako prezio hori kalkulatzeko, prezioen azterketa kanpoan ez uztea erabakitzen da.

d) Beste jarduerak batzuk ere sartzen dira, 7.000.000 euroren truke, eta 19.980.000 euroko hazkundera onartzen da autobia abian jartzeko epea murrizteagatik.

e) Lan guztiak egiteko aitortutako amaierako aurrekontuaren kalkulua (LGAAA) honela geratzen da:

	(euroak, milioitan)
Σ Lan bakoitzaren aurrekontua	302,9
Jarduera berriak	7,0
Desjabetzak eta beste jarduerak	21,0
Epea murriztea	19,9
Prezioen behin-behineko berrikuspena	35,6

f) Beste mantentze-lan batzuk ere jasotzen ditu emakida-hartzailearen kontura, eta lan horiek ondorio hauek dituzte tarifetan: ibilgailu arinak, 0,00486 eta ibilgailu astunak, 0,00656.

g) Finantza-plana eguneratzen du, eta hogeita bost urtean finkatzen du. Hala ere, 2007ko martxoan oraindik onartzeko eta kontratuan sartzeko zegoen. Aurkeztutako memoriaren arabera, adierazle nagusi hauek ditu planak:

Finantzatu beharreko zenbatekoa	393,7 milioi
Baliabide berekiak	80,7 milioi (% 20,5)
Sozietatearen kapitala	48,4 milioi (% 60)
Mendeko zorra	32,3 milioi (% 40)
Kanpoko baliabideak	313,0 milioi (% 79,5)

Finantzatu beharreko zenbatekoaren barruan sartzen dira alderdi hauek: obren kostua, desjabetzen kostua, prezioen azterketa eta enpresa emakida-hartzailearen beste gastu batzuk.

• Ondoren, eskema baten bidez erakutsiko dugu egindako inbertsioaren datu ekonomiko nagusiak (milioi eurotan).

Kontzeptua	Esleipena	Proiektuak onartu ondoren	Behin-behineko kitapena (1)
Eraikuntza-lana	279,2	302,9	302,9
Desjabetzak	21	21	21
Guztira	300,2	323,9	323,9
Aldaketak:			
Eraikuntza-lanak handitzeagatik	7	7	6,9
Eraikuntza-lanak azkartzeagatik	19,9	19,9	19,9
Prezioen berrikuspena	—	—	35,6
Guztira, aldaketak barne	327,1	350,8	386,3

(1) Txosten hau egin zen garaian, oraindik ez zegoen behin betikoa eginda; izan ere, oraindik beste lanen bat hartu behar da kontuan behin betikorako.

• Oinarriak eta onartutako aldaketak kontuan hartuta, tarifak eguneratu egin dira 2007rako, alderdi hauek aintzat hartuta:

a) Eraikuntza-lanen balioan, bi aldaketak (lanak handiagoak eta azkarrago bukatu beharra) eta prezioen azterketa hartu dira kontuan. Hori dela-eta, 386,3 milioiko amaierako prezio aitortua ateratzen da.

b) Esleipenaren zenbatekoa da eguneratzeko erabiltzen den oinarria (300,2 milioi).

c) Esleipenaren zenbatekoa eta amaierako prezioa konparatzen dira, eta, horrela, desbideratze-

ehunekoa lortzen da. Ehuneko hori erabiltzen da hasierako tarifak egokitzeko.

d) 2002ko irailetik zenbatutako KPIen arabera ateratzen da hasierako tarifa.

e) Oraindik behin-behinekoa da lanak egiteko aintzat hartutako zenbatekoa, oraindik ez baita behin betikoa onartu.

f) Zaintzeko eta mantentzeko aparteko tarifa KPIren eraginez bakarrik eguneratzen da.

Alderdi horiek guztiak direla-eta, hauek izanen dira tarifak:

	2002	2003	2007	
			Ofiziala	Egokitua
<b>Tarifa arrunta</b>				
Arinak	0,0655		0,0898	0,0801
Astunak	0,0884		0,1210	0,1078
<b>Aparteko tarifa</b>				
Arinak		0,00486	0,00555	0,00555
Astunak		0,00656	0,00748	0,00748

Tarifa ofizialaren zutabearen, tarifaren zenbatekoa ageri da, eguneratuta, Nafarroako Gobernuak onartutako akordioaren arabera.

Tarifa egokituaren zutabearen, tarifaren zenbatekoa ageri da, eguneratuta, Comptos Ganberak kalkulatuta, prezioen berrikuspena eta autobia azkarrago abian jartzeko onartutako zenbatekoa kontuan hartu gabe.

#### Ondorioak:

- Txosten hau egin zen garaian, oraindik ez zeuden onartuta lanen behin betiko zenbatekoak, eta, hortaz, ez genekizkien zehatz-mehatz tarifen behin betiko zenbatekoak.

- A-12 autobien emakida-kontratua onartutako aldaketak (hau da, prezioen berrikuspen ofiziala sartzea (35 milioi euro guztira) eta 20 milioi euro inguru onartzea autobia azkarrago abian jartzeagatik? lanen amaierako kostuan sartu dira. Amaierako kostu horrek erreferentzia gisa balio du behin betiko tarifak kalkulatzeko.

Prezioen berrikuspen ofizialari dagokionez, kontratazio hau arautzen duen AKPOko hainbat klausulatan berriaz baztertuta zegoen berrikuspen hori kontuan hartzea behin betiko tarifak finkatzeko. Denborak sortzen duen balio-galerari aurre egiteko, emakida-hartzaileak prezioen berrikuspena zenbatetsi behar du eskaintzarekin batera aurkezten duen finantza-planean, bai eta tarifen eguneratzea ere urtebeteko KPI nazionalarekin, kontratua sinatzen den datatik aplikatuta; hau da,

2002ko irailetik aplikatuta. emakida-hartzaileak eskatuta prezioen berrikuspen ofiziala aintzat hartzeak esan nahi du kontzeptu hori berriz kontatu behar dela, eta, hortaz, eragin handiagoa izanen duela ordaindu beharreko tarifetan.

Autobia azkarrago abian jartzeagatik 20 milioi euro inguru ordaintzea ez zegoen aurreikusita kontratazio hau arautzen duen AKPOn, eta, hortaz, hasieran aurreikusi gabe zegoen kontzeptu konpentsatzaile bat sartu zaio kontratistari. AKPOn berriaz jasota zegoen, baina, kontratistak eskari-kanona jasotzen hasi ahal izanen zuela autobia osoa abian jarri eta hurrengo hileko lehenengo egunean. Gure ustez, pleguan aurreikusitakoa bete behar zen, kanona berrikusten hasteko datari dagokionez, eta, horrez gain, beharrezkoa izanez gero, behar bezala justifikatutako gastuak onartu behar ziren, aurreikusitako gastuak baino handiagoak egiteagatik autobia azkarrago abian jartzeko.

Comptos Ganberak egindako kalkuluen arabera, zirkulazioaren aurreikuspenik baikorrena eginda eta autobia abian jarriko den datara aurreratuta kanona ordaintzeko epea, 112,2 milioi euro korronteko kanona ordaindu beharko du Nafarroako Gobernuak 25 urteko emakida-epetan, bi aldaketa horien eraginez. Lizitazio-baldintzak kontuan hartuta, ehuneko 10,7ko igoera dago.

- Aldaketa horien eraginez, bilakaera hau du inbertsioak (milioi eurotan):

Kontzeptua	Esleipena		Behin-behineko kitapena *	
	€ 2002		€ 2002	€ korronteak
Eraikuntza-lanak	279,2		329,6	329,9
Desjabetzak eta obra-zuzendaritza	21,0		21,0	21,0
Zaintza (aurreikuspena)	73,3		57,9	93,2
Aparteko zaintza	—		40,7	65,7
Prezioen azterketa (aurreikuspena)	—		—	35,6
Guztira	373,5		449,6	545,6

\* Behin-behineko datuak. Behin betiko kitapena egiteko dago.

• Zirkulazioari dagokionez abiapuntuzat hartu diren hipotesien arabera, eskari-kanonak balio hauek ditu (milioi eurotan), aldaketak egin ondoren:

	30 urteko esleipena		25 urteko behin-behineko kitapena	
	€ 2002		€ 2002	€ korronteak
Kanona	515,8		723,7	1.157,6

Hogeita hamar urterako esleipenean kanonak zenbat balio duen jakiteko kalkuluen barruan ez dira sartzen aldaketak, ez prezioen berrikuspina eta zaintzaren zenbatespenaren zati bat hartzen du abiapuntu. Beste kasuetan, hogeita bost urterako egindako kalkuluetan, kontuan hartzen dira prezioen berrikuspenak, lanen aldaketak, bai eta zaintzaren aparteko kanona ere.

2002ko euro konstantetan, eraikuntza- eta mantentze-lanetako inbertsioa ehuneko 20 igotzen bada (373,5 milioi eurotik 449,6 milioi eurora pasatzen bada) kanona ehuneko 40 handitzen da, 515,8 milioi eurotik 723,7 milioi eurora handitzen baita bost urte murriztuta.

• Euro konstantekin jarraituz, eskari-kanonaren balioaren eta inbertsioaren, zaintzaren eta mantentzearen balioaren arteko erlazioa 1,38tik (515,8 373,5 milioitik) 1,61era (723,7 449,6 milioitik) pasatzen da, esleipenari eta behin-behineko kitapenean onartutakoari begiratuta.

#### VII.4. NAFARROAKO UBIDEKO ALDE UREZ-TAGARRIEI BURUZ.

• Itoizko urtegia Estatuak egin du Ebroko Ur Konfederazioaren bitartez, eta urtegiaren desjabetzak eta urtegia jartzeko egindako errepide berriak eraikitzeke desjabetzak Nafarroako Gobernuak finantzatu ditu. Horrez gain, Nafarroako Gobernuak eraiki ditu errepide berriak. Nafarroako ubidearen ehuneko 50 Estatuak eta Nafarroako Gobernuak finantzatu dute (sozietatearen kapitalari ekarpenak eginda, ehuneko 60ko eta ehuneko 40ko proportzioan, hurrenez hurren) eta beste ehuneko 50a, erabiltzaile hidroelektrikoek (herritarrek, industriek eta ureztapen-uren erabiltzaileek). Azpiegitura horiek eraikita, lehorreko lurra sail ureztatu bihurtzen dira eta dagoeneko badauden sail ureztatuak finkatzen dira. Nafarroako Gobernuak du aldaketa horren ardura, "Riegos del Canal de Navarra" enpresa publikoaren bitartez. Enpresa publiko hori da aldaketa gauzatzearen arduraduna.

• Azpiegiturak eraikitzeke, mantentzeko eta ustiatzeko, sektore pribatuaren lankidetzat dago, emakida-kontratu baten bitartez. Lan horiek guzti-

ak finantzatzeko, kanon bat ordainduko da (itzaleko bidesaria).

• 30 urteko eperako egin da emakida, eta lehenengo bost urteak daude aurreikusita lan guztiak egiteko. Zatiak bukatu ahala, zati horiek ustiatzen hasi ahal izanen dira.

• emakida-hartzaileari ordaindu beharko zaion kanonak hiru zati hauek ditu:

a) Eskari-kanona. Kontsumitutako uraren arabera.

b) Kalitate-kanona. Zenbateko bat ezartzen da hektareako eta zenbateko horri kenkariak ezar dakizkioke, azpiegituraren erabilgarritasunaren arabera. Horrela, zigortu egiten da ur-galerak, matxurak... direla-eta.

Bi kanon horiek Nafarroako Gobernuak ordaintzen ditu.

c) Ustiapeneko. Instalazioen ustiapen- eta mantentze-gastuak ordaintzeko. Ureztatzaileek ordaintzen dute, ureztapen-hektareen arabera.

• Eskari-kanona kalkulatzeko, AKPOk unitate-tarifaren zenbateko hau finkatu du (BEZik gabe) eskaintzak aurkezteko muga-egunear: 0,0446 €/m<sup>3</sup> kontsumituak. Zenbateko hori urtero egunera daiteke, indexazio-faktore baten arabera, eta tarifa-tarteetan moldatu, ureztapen-sektore bakoitzean egondako kontsumo-mailaren arabera. Kontratua indarrean dagoen bitartean iraunen dute:

Urteko kontsumo metatua (m<sup>3</sup>/ureztatutako ha garbia) Tarifen zuzenketak

0tik 3.512ra arte	% 100 x T
3.513tik 4.013ra arte	93,81 x T
4.014tik 5.016ra arte	57,52 x T
5.017tik 6.333ra arte	% 17,7 x T
6.333 baino gehiago	% 0 x T

• Emakida hartu duen sozietatearen kapitala ezinen da izan inondik inora inbertsio osoaren ehuneko hamar baino txikiagoa. Inbertsioaren barruan, kontuan hartzen dira interes orokorreko azpiegiturak gauzatzeko aurrekontua, industria onura eta gastu orokorrak eta kanpora uzten dira,

berriz, alderdi hauek: a) administrazioak egindako lanak, b) kapitalizatutako finantza-gastuak, c) hainbat ekitalditan banatu beharreko beste zenbait gastu aktibatu, eta d) emakida hartu duen sozietateak jasandako BEZa. Kapital hori handitu eginen da eskainitako ehunekoa mantentzeko, ureztapensektore bakoitzean aurreikusitakoa baino handiagoa denean inbertsio osoa.

- 2006ko irailaren 26an sinatu zuten kontratua, eta, hortaz, eraikuntza hasierako fasean dago orain, lehenengo zatia izan ezik (Izarbeibar). Lehe-

nengo zatia administrazioak eraiki zuen, eta esleipendunari utzi dio, ustiatzeko.

- Ondoren, aurkeztutako eskaintzaren alderdi nagusietako batzuk aurkezten ditugu (kasu batzuetan, alderdi horiek konparatuta daude administrazioak lizitaziorako adierazitako datuekin):

a) Eskainitako urteko gehieneko kopurua, 2006. urteko eurotan, ureztatutako hektarea bakoitzeko eta urteko: 221,03. Honela banatuta dago: 202,07 kalitate-kanonekoa eta azpiegituraren kudeaketakoa eta 18,97 ustiapen-kanonekoa.

b) Inbertsio gordina		163.952
Inbertsio garbia (ureztatzaileen komunitateen ekarpenak eta norberak sortutako funtsak sartuta)		134.114
Sozietatearen kapitala	12.875	
Partaidetza-maileguak	5.338	
Akziodunen beste ordainketa batzuk	14.247	
Akziodunek guztira egindako ekarpenak		32.460
Zorra		115.901
Ureztatzaileen ekarpenak		15.591

- Pleguan aurreikusitako inbertsioaren eta eskainitakoaren zenbatekoak koadro honetan ikus daitezke konparatuta.

Euro konstanteak, milakotan (BEZ barne)		Eskaintza ekonomikoa	AKPO
(A)	Lanak gauzatzeko aurrekontua	101.403,30	117.956,60
(B)	% 15 gastu orokorrak eta industria onura	15.210,50	17.693,50
(C=A+B)	Inbertsio osoa	116.613,80	135.650,00
(D)	BEZa	18.658,20	21.704,00
(E=C+D)	Kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua	135.272,00	157.354,00
(F)	% 8 kontzesio-hartzailearen konturako gastuak (BEZ barne)	9.259,60	12.588,30
(H=E+F)	Aurreikusten den inbertsioaren aurrekontua guztira	144.531,70	169.942,40

- Ondoren, eskainitako urteko gehieneko kopuruak aurkezten ditugu, pleguan aurreikusitakoekin:

	Pleguko gehienekoa	Eskaintza	
Eskari-kanona	0,0446	0,0446	€/m <sup>3</sup>
Kalitate-kanona	454,08	202,07	€/ha
Ustiapen-kanona	42,62	18,97	€/ha



- Koadro honetan ikus daiteke pleguan aurreikusitako kanonaren zenbatekoaren eta aurkeztutako eskaintzatik ateratzen den kanonaren zenbatekoaren konparazioa.

	Plegua	Eskaintza
Eskari-kanona	219.096,24	229.024,68
Kalitate-kanona	507.819,00	230.464,24
Nafarroako Gobernuak, guztira	725.915,24	459.485,91
Ustiapen-kanona	47.663,95	21.631,40

- Esleipendunaren eskaintzaren finantza-ere-dua emakida-kontratu honetara sartzen da eta Emakidaren Ekonomia Plan Finantzarioa osatzen du.

- Hainbat urtetarako gastuen gehieneko zenbatekoak finkatzen dituen Nafarroako Gobernuaren Akordioaren orde, beste akordio bat zehazten da. Akordio berri horretan adierazten da funtsak "egokitu egin beharko direla" esleipena egin eta kontratua formalizatzean, bai eta lanak gauzatzean eta ustiatzean ere.

Ondorioak:

- Azpiegiturak eraikitzeke aurreikusitako epea 2011. urtea denez, aurkeztutako eskaintza bakarrik baliozta dezakegu. Litekeena da aldaketak egotea azpiegitura gauzatzeko lanen eraginez.

- Eredua honetan, kontsumitutako ura oso aldarra izan daiteke, urte bakoitzeko laborantzen arabera. Hori dela-eta, garrantzi handia du kalitate-kanonak, finantzatzeko funtsezko alderdia baita.

Hala ere, nabarmendu behar dugu pleguaren arabera kalitate-kanonaren eta eskari-kanonaren artean aurreikusita zegoen erlazioa 70-30ekoa zela eta eskaintzaren arabera 50-50 bihurtu dela.

- Aurkeztutako eskaintzaren arabera, inbertsioa ehuneko 15 murrizten da, pleguko 169,9 milioiak 144,5era jaisten baitira eskaintzan.

- Eskaintzako tarifek beherakada hauek dituzte:

	merkatze %
Eskari-kanona (kontsumitutako ureko)	0
Kalitatekoa (hektareako)	55
Ustiapeneko (hektareako)	55

- Pleguan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak eskari-kanonean eta kalitate-kanonean ordaindu behar zuen gehieneko zenbatekoa 726 milioikoa zen, euro korrontetan, eta eskaintzaren arabera, 459 milioira jaisten da. Ehuneko 37ko beherakada dago, hortaz.

Kalitate-kanonean egon da beherakada; izan ere, eskaintzan ur-kontsumo handiagoa aurreikusuten denez, eskari-kanonaren zenbatekoa 10 milioi euro hazi da.

- Ur-kontsumoaren aldaketak kanonean duen eragina koadro honetan ageri da. Koadroa kalkulatzeko, plegutik ateratzen diren batez besteko kontsumoak hartu dira kontuan, bai eta eskaintzako batez besteko kontsumoak eta gehieneko kontsumoa ere (kontsumo horretatik aurrera tarifarik ez dago):

	Plegua	Eskaintza	Gehienekoa
Batez besteko kontsumoa (m <sup>3</sup> )	5.017	5.293	6.333
Tarifa (€/m <sup>3</sup> )	235,39	231,43	247,92
Pleguaren araberako kontsumoaren ehunekoa		6	26
Pleguaren araberako zenbatekoaren ehunekoa		2	7
Kontsumoaren hazkundearen ehunekoa, eskaintzaren arabera			20
Zenbatekoaren hazkundearen ehunekoa, eskaintzaren arabera			5

Hau da, plegutik eskaintzara aurreikusten den ur-kontsumoaren hazkundera ehuneko seikoa da, eta kanona ehuneko bi hazten du. Gehieneko kontsumoetara iritsiz gero, aurkeztutako eskaintza ehuneko hogeitaz haziko balitz, kanona ehuneko bost handituko litzateke.

#### VII.5. «ITZALPEKO BIDESARIAK» HURRENGO AURREKONTUETAN IZANEN DUEN ERAGINARI BURUZ

- Erabilitako datuen arabera (adierazi dugu jada ez direla behin betiko datuak), autobiatik eta Nafarroako ubideko alde ureztagarrietatik sortzen diren itzalpeko bidesariak ordaintzeak eragin hauek izanen ditu Nafarroako aurrekontuetan, bakoitza bere hipotesien arabera kalkulatuta: batez beste ehuneko 15 gutxi gorabehera, aurrekontuen bigarren kapituluko bolumena kontuan hartuta

(ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak). Agerian utzi behar dugu Nafarroako ubideko alde ureztagarrietatik ordainduko den kanona enpresa publiko baten bitartez ordainduko denez, kontusaila duela aurrekontuko transferentzien kapituluan. Burututako azken aurrekontuei aplikatzen badiogu (2006ko ekitaldiari), bi kanon horien zenbatekoa 50 milioi eurokoa izanen litzateke, gutxi gorabehera; izan ere, bigarren kapituluan kontabilizatutako gastua 335,7 milioi eurokoa da. (Kanonen kontabilizazioari dagokionez, gogoratu VI.2 atalean adierazitakoa).

Txosten hau Jesús Muruzábal Lerga auditore jaunak proposatuta eman da, bera baita lan hau egiteko erantzukizuna izan duena, behin indarreko legediak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruña. 2007ko irailaren 17a

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

**I. eranskina. Montepioak Nafarroako Gobernuarentzat izango duen kostuaren banaketa denboran**

(euro korrontetan)

Urtea	Euroak	Urtea	Euroak	Urtea	Euroak
2007	46.792.144	2046	78.117.117	2085	263.915
2008	48.543.891	2047	74.437.549	2086	227.450
2009	50.657.129	2048	70.684.691	2087	198.187
2010	53.103.652	2049	66.874.174	2088	174.192
2011	55.699.987	2050	63.023.011	2089	154.035
2012	58.532.960	2051	59.149.354	2090	136.650
2013	61.446.127	2052	55.272.532	2091	121.321
2014	64.683.389	2053	51.412.776	2092	107.539
2015	67.634.193	2054	47.591.159	2093	94.980
2016	70.503.803	2055	43.829.214	2094	83.452
2017	73.390.302	2056	40.148.587	2095	72.835
2018	76.331.075	2057	36.570.617	2096	63.054
2019	79.496.705	2058	33.115.890	2097	54.088
2020	82.620.525	2059	29.803.690	2098	45.917
2021	86.178.223	2060	26.651.411	2099	38.540
2022	89.267.025	2061	23.674.151	2100	31.953
2023	92.403.511	2062	20.884.369	2101	26.137
2024	95.943.180	2063	18.291.735	2102	21.076
2025	99.189.013	2064	15.902.930	2103	16.735
2026	102.250.193	2065	13.721.523	2104	13.071
2027	105.199.888	2066	11.747.850	2105	10.032
2028	107.229.940	2067	9.979.091	2106	7.557
2029	108.859.909	2068	8.409.456	2107	5.579
2030	109.834.084	2069	7.030.481	2108	4.036
2031	110.459.420	2070	5.831.459	2109	2.855
2032	110.473.526	2071	4.799.805	2110	1.972
2033	110.182.943	2072	3.921.660	2111	1.328
2034	109.543.994	2073	3.182.277	2112	872
2035	108.568.968	2074	2.566.541	2113	557
2036	107.199.361	2075	2.059.404	2114	345
2037	105.442.620	2076	1.646.235	2115	207
2038	103.098.381	2077	1.313.220	2116	121
2039	100.585.108	2078	1.047.550	2117	68
2040	97.828.004	2079	837.642	2118	35
2041	94.875.686	2080	673.161	2119	18
2042	91.817.478	2081	545.182	2120	9
2043	88.557.417	2082	446.078	2121	3
2044	85.201.011	2083	369.470	2122	1
2045	81.709.136	2084	310.141		
					4.329.187.807

**II. eranskina Nafarroako Gobernuak ordaindu beharreko kanonaren urteroko banaketa\***

Urtea	euro korronteak, milakotan	
	onartutako tarifen arabera (1) Eskari-kanona Autobia	Eskaintza (2) Nafarroako Gobernuaren ordainketak Ureztapenak
2006		136
2007	27.527	892
2008	29.497	2.612
2009	32.150	5.393
2010	35.138	8.552
2011	37.494	11.782
2012	40.009	12.940
2013	42.577	13.263
2014	45.310	13.594
2015	48.218	13.934
2016	51.313	14.283
2017	54.607	14.640
2018	58.112	15.006
2019	61.842	15.381
2020	64.568	15.766
2021	67.339	16.154
2022	70.143	16.551
2023	72.743	16.958
2024	75.443	17.375
2025	78.247	17.799
2026	81.158	18.227
2027	84.182	18.663
2028		19.111
2029		19.568
2030		20.034
2031		20.510
2032		20.986
2033		21.465
2034		21.955
2035		22.458
2036		13.500
Guztira	1.157.617	459.486

(1) Txosten hau egitean onartuta dauden akordioen arabera.

(2) Esleipendunaren eskaintzaren arabera.

\* Zenbateko horien barruan, alderdi hauek sartzen dira, funtsean: eraikuntza-, mantentze- eta finantziazio-gastuak eta enpresa esleipendunaren onurak.

## NAFARROAKO GOBERNUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO OHARRAK

Comptos Ganberak “Donejakue bideko autobien, Nafarroako ubidearen eremu ureztagarrien eta funtzionarioen montepioaren ondoriozko etorkizuneko gastuei buruzko fiskalizazio txostena” izeneko behin-behineko txostena egin du, eta bertan bi jardura aipatzen dira, Donejakue Bideko autobien emakida kontratuaren garapenari buruzko espedienteari buruzkoak. Idazki honen bidez, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak azaltzen du departamentuak jarraitu duen irizpidea aipatu jardueren izapidetzeari eta onespenari dagokienez:

### 1) Arintze kostuak aitortzeari dagokionez:

Nafarroako Foru Komunitateak, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez, aztertu zuen enpresa emakida-hartzailea eginiko proposamena, autobien zenbait zati kontratuan ezarritako epeak bete baino lehen funtzionamenduan jartzeko aukerari buruzkoa, eta ulertu zuen legeak ezarritako gaitzen duen kasuan sartzen zela, eta kontratuen aldaketaren oinarri izan behar duen interes publikoko arrazoiak ere bazirela. Hori dela eta, bidezkoztat jo zen lanen exekuzioaren arintzeari buruzko espediente izapidetzea eta onestea. Espedientean aginduzko agiri guztiak jasotzen dira: Bide eta Eraikuntza Zerbitzuak eginiko txosten tekniko-ekonomikoa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Idazkaritza teknikoaren txosten juridikoa, eta Nafarroako Gobernu Kontu-hartzailetza Orokorren fiskalizazioa.

Espedientean kontuan hartu zen zenbateko kostu-handitzea ekarriko zion enpresa emakida-hartzaileari Donejakue Bideko autobien garrantziko obra baten exekuzio epea laburtzeak, baita laburtzeak administrazioak kontratuaren garapenean onetsitako obra-bolumenaren handitzei zegozkion epe-luzapenen gainean izanen zituen ondorioak ere. Halaber, kontuan hartu zen sozietate emakida-hartzaileak jasanen zuen eragin finantzarioa, autobien kanonaren kobrantza ez hasteagatik, lanak arintzearen ondorioz, autobia funtzionamenduan jartzeko aurreikusitako datan (2006.09.30), baizik eta beste batean (2007.01.01). Hori guztia alderatu zen azpiegitura erabilera publikoari ematearen aurrerapenak autobien erabiltzaileentzat eta Nafarroako Foru Komunitatearentzat izanen zuen onurarekin, interes orokorri dagokionez.

Autobia zerbitzuan jartzea aurreratzea dela eta, emakida-hartzaileari lan guztiak egiteko aitor-

tutako amaierako prezioaren gehikuntza aitortzeko aukerari dagokionez, hura kalkulatzeko, espedientean egutegi bat onetsi zen. Bertan zenbait helburu-data jasotzen ziren, autobia zati bakoitzerako, emakida-hartzaileak balizko aurrerapena (6 eta 11 hilabete bitartean, zatiaren arabera) betetzeagatik zati bakoitzari zegokion kopuruarekin, eta lanak arintzeko planean aurreikusitako gainkostuaren adinako mugarekin. Halaber, lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioaren gehikuntza murrizteko sistema bat ezarri zen, emakida-hartzaileak helburu-datak betetzen ez zituen kasurako, eta kontuan hartzen zen ere inolako gehikuntzarik ez izateko aukera. Emakida-hartzaileak alde aurretik onetsitako egutegia bete zuenez, administrazioak lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioa handitu zuen ezarritako kopuruan, eta emakida-hartzaileari eskariaren kanona ordaintzen hasi zen, espedientean onetsi bezala, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera; hain zuzen, autobia zerbitzuan jarri eta hiru hilabetera.

Bestalde, epe aldetiko helburu berriei dagozkien gainkostuak “a priori” ezartzea, bete aurretik eta era kontrajarrian, bat dator administrazioari kontratazioari buruzko araudiarekin; izan ere, honek ezartzen du prestazioen ordainketa prestazioa bete aurretik kontraturiko prezioen bidez eginen dela, eta ez kontratistak eginiko kostu errealen bidez, administrazioak ez baitu haien ezaguerarik.

### 2) Prezioen berrikuspen ofizialari buruz:

Espedientea sozietate emakida-hartzailearen eskariz izapidetu zen, kontratuak zenbait klausulatan ezarritako prezioen berrikuspen ofizialari eginko aipamenean interpretazioa eta kontratazio-organoren legezko ahalmena argitze aldera.

Kontratuaren 30. klausularen arabera, emakida-hartzaileak eskubidea du lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioari erants dakion prezioen berrikuspen ofizialari dagokion zenbatekoa, kontratuan sartutako eta administrazioak onetsitako eraikuntza proiektuen helburu den lan bakoitzerako. Horri dagokionez, adierazten da aplikagarri izanen dela abenduaren 19ko 3650/1970 Dekretuaren bidez onetsitako 5. formula. Kontratuan ezarritako arauditik ondorioztatzen da kontratuari espresuki aplikatuko zaiola prezioen berrikuspen ofiziala, eta horrek eragina izanen du kontratuaren zenbait alderdiri dagokienez.

Lanak egiten ziren bitartean, emakida-hartzaileak adierazi zuen kontratuan ezarritako araubidean kontraesan bat zegoela; izan ere, prezioen berrikuspen ofizialak ustiapen fasean aplikagarria den tarifa bateratua zehazterakoan eragina izan

dezakeen unean, kontzeptu hori baztertu egiten zen kontratuko kasuan kasuko klausulan. Emakida-hartzaileak eskatu zuen kontratua interpretatzerakoan uler zedin prezioen berrikuspen ofiziala sartuta dagoela aipatu unean ere.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak –Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua eta Ekonomia eta Ogasun Departamentua–, eskaera aztertu ondoren: kontuan hartuta emakida-hartzailearen argudioak, kontratuan ezarritako araubidea eta aplikagarri zaion araudia, ulertu zen prezioen berrikuspen ofiziala, haren aitortpenaren ondorioetarako, emakida-hartzaileak eginiko inbertsioaren zenbatekoaren zati zela. Hori dela eta, zegokion espedientearen aginduzko txostenekin izapidetu ondoren, onetsi zen hura aitortzea emakida-hartzaileari lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioaren osagai gisa, zenbatekoa positiboa ala negatiboa izanda ere. Aipatu aitortpena kontzeptualki eta ekonomikoki desberdina da tarifak zehazteko eta eguneratzeko sistemaren aldean, kontratuan onetsitako inbertsioaren saritzeko moduari dagokionez, kontratuan aurreikusitakoaren arabera egin behar baita. Horrekin lotuta, zehaztu behar da tarifen eskema ekonomiko-finan-

tzarioa eta denboran izanen duen bilakaera eta eguneratzea pleguan eta kontratuan ezarritako sistemari dagozkiola. Sistema horren bidez, ordaintzen da, besteak beste, eginiko eta administrazioak lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezioaren aitortutako inbertsioa, kontuan hartu gabe lan guztiak egiteko aitortutako amaierako prezio hori osatzen duten batugaiak.

Iruñean, 2007ko irailaren 13an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

#### **NAFARROAKO GOBERNUAK AURKEZTUTAKO OHARREI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako oharrak aztertu ondoren, txostenean sartzen dira eta behin betiko txosten bihurtzen da, ohar horiek egindako jardueraren azalpentzat hartzen baitira eta ez baitute txostenaren edukia aldatzen.

Iruña. 2007ko irailaren 17a

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

